


OCW

IKASTEKO MATERIALA: 4.GAIA

FAMILIA-ORIENTAZIOA



designed by freepik.com

4.guia. Familia-orientazioko gidak eta programak

- 4.1. Sarrera
- 4.2. Familia-orientazioko gidak
- 4.3. Familia-orientazioko programak
- 4.4. Erreferentzia bibliografikoak

IKASKETA-EMAITZA HAU IZANGO DA:

Familia-orientazioan erabili ohi diren tekniketara, gidetara eta programetara hurbiltzea

4.guia. Familia-orientazioko gidak eta programak

4.1. Sarrera

Gai honetan gidak eta programak bilduta eta zenbaitzuk deskribatuta agertuko dira. 3. gaian ikusitako zenbait familia-estrukturaren gidak, garai ebolutiboaren araberako gidak eta problematikaren araberako gidak bildu dira. Gida gehienak deskargatzeko moduan daude eta horrela ez bada, elkartearekin harremanetan jarri zaitezke. Euskaraz aurkitu izan dudana txertatzen saiatzen naiz beti, eta gehiago ere badira. Adibidez, ahalegin berezia egin du Lea Artibaiko Mankomunitateak esteka honetan dituzuen gidak argitaratzen [1](jarraitu esteka: http://www.lea-artibai.org/eu-ES/Baliabideak/Argitalpenak/Orrialdeak/Publi_Guiaparamadrespadres.aspx)

Gurasotasunaren inguruan dauden gida, programak eta formakuntzako aukerak ezagutzea garrantzitsua da, beraiekin hainbat jarduera egin baidaiteke. *Counseling*-erako balio dezakete, tailerrak antolatzeke, hitzaldiak emateko, etab. Era berean, tailer asko antolatzen dira udal-zerbitzuetatik, elkarteetatik eta gabineteetatik. Gai honetako praktikan (6.enean), programak taldeetan aurrera eramateko moderatzaileentzako aholkuak eta praktika onak irakurriko dituzue.

Gida eta programen puntu honetan garrantzitsua da aipatzea zenbait webgune interesgarri. Hona hemen taula batean laburbilduta (Ikus 1. Taula).

1.Familiekin lotura duten webguneak (gidak, programak eta informazio interesgarria)

WEBGUNEA	ESKURAGARRI NON ETA OHARRAK
Gurasotasunaren ataria	http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/gurasotasuna/
HAEZI elkarte	http://www.haezi.org/eu/inicio.html
CEAPA konfederazioa	https://www.ceapa.es/ Bertan aipatzen diren albisteak, gaiak eta ikastaroak jarraitzea egokia izan daiteke
Centro Nacional de desarrollo curricular (CEDEC)	http://cedec.intef.es/proyecto-edia-guia-diversidad/ Gurasoentzako, ikasleentzako eta hezitzaileentzako informazioa, baliabideak eta ikasgeletako aniztasunaren praktika onen adibideak ageri dira
Red de Recurso Educativos en abierto PROCOMUN	http://procomun.educalab.es/es/articulos/padres-y-tdah-como-comunicarnos-e-implicar-la-familia Sarean dauden hezkuntza-baliabideak irekian agertzen dira
<i>Orientasare</i>	https://sites.google.com/site/orientasare/guraso-eskola

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko orientatzaileen sarea	Jarraitu gurasoentzako atala
Ikas Komunitateak	http://ikas-komunitateak.blogspot.com/search/label/ikasi%20komunitateak%20hezkuntza%20euskadi Ikas Komunitateetatik egiten den lana oso garrantziriktsua da familientzat, eskoletan parte hartze maila handi bat ahalbidetzen baitie
Gasteizko Udala	https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?lang=eu&locale=eu&idioma=eu&uid=u6d4c2783_126883b439a__7fbc Gasteizko Udaletik egiten diren Hezkuntza jarduerak – Gurasoak webgunekoak- Euskaraz ere begiratu dezakezue

4.2. Familia-orientazioko gidak

Jarraian zazpi gida deskribatzen dira gurasoei eta profesionalei zuzenduta daudenak, tematika desberdinen inguruan direlarik.

1. GIDA	
GIDAREN IZENBURUA	Guía de familias reconstituídas
NORK ARGITARATUA	Unión de Asociaciones Familiares (UNAF)
URTEA	2017
ORRI-KOPURUA	65
ZER LANTZEN DA ETA NORENTZAKO?	Egoera honetan dauden familientzako gida bat da, planteatzen zaizkien erretoei modu positiboan aurre egiteko. Hizkuntza errazean idatzita dago eta lantzen diren gaiak hauexek dira: Nola funtsionatzen du birreraikitako familia batek? Seme-alaben ikuspuntua, familietako konfliktu-iturriak eta estresa, zenbait jarraibide, autoebaluaziorako galderak (ondo egiten ari garen jakiteko) eta familian irakurteko kontakizun bat ¿Hola, soy Lorena'
KONTSULTA	[2019-03-22]
ESKURAGARRI	https://unaf.org/blogfamiliasreconstituídas/recursos/ (Jartzen duten helbidera idatziz, doan bidaltzen dute)

2. GIDA	
GIDAREN IZENBURUA	La Mediación Familiar. Guía para madres y padres que afrontan una separación
NORK ARGITARATUA	Unión de Asociaciones Familiares (UNAF)
URTEA	2013
ORRI-KOPURUA	38
ZER LANTZEN DA ETA NORENTZAKO?	Gaiak hauexek dira: Familia-bitartekaritzaren prozesua, haurren eskubideak banaketa bat dagoenean, aholku erabilgarriak seme-alabek egoera berria uler dezaten eta moldatzen laguntzeko, haurrek erabiltzen dituzten estrategiak banaketaren aurrean, kustodia mota desberdinak, familia-bitartekaritzan abantailak, familia-bitartekaritza ez denean posible eta nola aurkitu bitartekari bat. Norentzako? Banaketa edo dibortzio egoera batetik pasatzen ari diren bikoteentzako

KONTSULTA	[2019-03-22] ESKURAGARRI https://unaf.org/blogfamiliasreconstituidas/recursos/
------------------	--

3. GIDA	
GIDAREN IZENBURUA	Dibortzio egoeren aurrean eskolan beharrezkoak diren jardunbide egokien eskuliburua. Profesionalentzako gida
NORK ARGITARATUA	Eusko Jaurlaritza
URTEA	2014
ORRI-KOPURUA	48
ZER LANTZEN DA ETA NORENTZAKO?	Gida honen helburua honako hau da hezkuntza arloko profesionali beren lanaren bitartez beren familian dibortzio-egoera bat bizi duten hurrei laguntzeko beharrezkoak dituzten tresnak ematea. Horretarako, ondoko gaiak lantzen dira: Dibortzioa gainditzen daudenean hurrek esperimentatzen dituzten aldaketak, hezkuntza-komunitateko profesionalak dituzten usteak,, Gurasoek dituzten usteak, familiaren eta eskolaren arteko lankidetzarako jardunbideak, etab. Eranskin batzuk ere gehitzen dira, hala nola, dibortzio baten ondorengo ohiko erreakzioak, eskolan zeharka lantzeko ariketak, Hezkuntza sailaren instrukzioak, etab.
KONTSULTA	[2019-03-30]
ESKURAGARRI	https://www.berrigasteiz.com/site_argitalpenak/docs/100_inclusiva/1002011003e_Pub_EJ_egokitzen_dibortzioak_praktika_onak_e.pdf

4. GIDA	
GIDA	Mi familia es así
NORK ARGITARATUA	Save the children
URTEA	2014
ORRI-KOPURUA	32
ZER LANTZEN DA ETA NORENTZAKO?	<i>Save the Children</i> –era hurbiltzen diren familiekin eginiko tailerrek emaitz onak eman dituztenez, beste erakunde batzuren esku jarri da material hau. Aniztasun funtzionala duten hurre neba-arrebekin lantzeko ariketak dira. 3 saio: 7-10 haurrentzako eta berdin 11-15 urteko nerabeentzako. Haseran gurasoei galdesorta bat pasatzen zaie eta bukaeran

	gurasoei haurrek/nerabeek bete dituzten ebaluazio-galdesortak erakusten zaizkie.
KONTSULTA [2019-03-22] ESKURAGARRI https://www.savethechildren.es/centros-educativos/materiales-educativos/mi-familia-es-asi	

5. GIDA	
GIDAREN IZENBURUA	Familias Comaternales. Guía para Personal Educativo
NORK ARGITARATUA	Les madres
URTEA	2011
ORRI -KOPURUA	16
ZER LANTZEN DA ETA NORENTZAKO?	<p>Gida honek hezkuntzako langileen artean sortu daitezkeen zalantza batzuei erantzuna eman nahi die. Zenbait aholku eta iradokizun eskaintzen ditu eskola denentzako toki lagunkoia eta ziurra izan dadin. Izan ere, gidak dionez, eskola, gizarte-erakunde gehienek moduan, familia tradizional eta heterosexualetan pentsatuta dago. Hala ere, eskola komunitate zabalago baten zati da eta bertan errealtate desberdinen elkarbizitza ematen da. Honengatik beharrezkoa da hezkuntza-komunitatea berriro pentsatzea. Glosategi txiki bat eta haur-literaturako erreferentzia batzuk ere ematen dira. Norentzako da? Eskola-komunitatearentzako.</p>
KONTSULTA	[2019-03-22] ESKURAGARRI http://www.lesmadres.com.ar/

6. GIDA	
GIDA	Guía para la elaboración de la historia de vida
NORK ARGITARATUA	Consejería de Bienestar Social y Vivienda (Asturias)
URTEA	2015
ORRI -KOPURUA	63
ZER LANTZEN DA ETA NORENTZAKO?	<p>Bizitza-historioa egitea lan-tresna indartsu bat da eta gida bat eman nahi da kontakizunak 'eraikitzen' dituzten pertsonentzako, hau da, profesionalentzako, amentzako, aitentzako eta harrera familientzako. Gida honek sarrera bat, bi titulu eta eranskin bat ditu.</p> <p>Sarreraren atala: azaltzen da zein garrantzitsua den norbere bizitzaren kontakizun koherente bat izatea, askotan mingarria</p>

	<p>edo ia ia ezezaguna dena. Profesionalen eta familien zainketako eta babesteko funtzioen barruan kokatuko litzateke zeregin hau hartzea.</p> <p>1. titulua sei kapitulotan banatuta dago. Adibidez, hirugarren, laugarren eta bosgarren kapituluetan zehar lan egiteko materialak biltzen dira, gertatu diren kontuak iraganekoak, gaur egunekoak edo etorkizunekoak direnaren arabera. Azken kapitulua 'Bizitza-historia' da. 2. tituluan zortzi teknikak ageri dira eta zenbait ekintza. Azkenik, eranskinean, adopzioarako prestakuntza edo familia harrera iraunkorrari buruz hitz egiten da. Azken atal hau modu estrukturatu baten landuta dago, bizitza esperientzia berri baterako trantsizioa egiten laguntzen du eta.</p>
KONTSULTA	[2019-03-22]
ESKURAGARRI	https://www.observatoriodelainfancia.es/oia/esp/documentos_ficha.aspx?id=4750

7.GIDA	
GIDAREN IZENBURUA	Guía práctica para la intervención familiar II. Contextos familiares cronicados o de especial dificultad
NORK ARGITARATUA	Junta de Castilla y León (Valentín Escudero)
URTEA	2013
ORRI-KOPURUA	162
ZER LANTZEN DA ETA NORENTZAKO?	Gida hau <i>Programa de Intervención Familiar</i> (Junta de Castilla y León) material osagarria da. Esku-hatze taldeetako psikologo eta hezitzaileei lagundu nahi zaie familiaren arriskuak eta baliabideak baloratzeko orduan. Batetik, programaren erabiltzaileekin eta inplikaturik dauden beste talde batzuekin kolaboraziozko harremana lortzeko jarraibideak ematen dira; bestetik, prozesuaren zereginetan teknikaria gidatzea bilatzen da (esku-hartzeko helburuen definizioa, aurrerapasoaren ebaluazioa, erabakiak hartzea... etab). Azkenik, teknikoak erabiltzaileekin eukitzen dituen elkarrizketetan orientatzea bilatzen da.
KONTSULTA	[2019-03-22]
ESKURAGARRI	http://uiicf.net/wp-content/uploads/2014/06/Escudero_GPIF2.pdf

4.3.Familia-orientazioko programak

Programa bat izango litzateke, esku-hartze psikopedagogiko bat fundamentatzen, sistematizatzen eta ordenatzen duen sistema bat; esku-hartzea jasotzen dutenen beharretara edo asesoramendu beharrera egokituta dago eta lehentasunak jartzen dira sistematizazio honetan (Parras eta Grañeras, 2008). Eusko Jaurlaritzaren Gurasotasunaren atarian [2], programen atalean, gurasotasunaren printzipioetan oinarritutako esku-hartze-programak aurkezten dira eta profesionalak familiekin era praktikoan burutzeko erabili ditzakete. Aipaturiko programak, ikerkuntzatik datoz eta bere erabilgarritasuna frogatu dute, familien heziketa eta haziera lanetan. aurrerapenak lortzen lagunduz. Programa hauek, familiei eta beraien seme-alaben jardunari erantzuten diete eta parte hartzen duen familia bakoitzaren beharretara egokitzen dira. Programa psiko-hezitzaileak dira.

Erkidegoko programak dira adibidez, Cofami, Nahiko, Sexumuxu eta Gurasoak. Espainia mailako programak dira *Programa Alfil*, *Papás 2.0* eta *Programa de Intervención familiar*; eta ebidentzian oinarritutako nazioarteko programak dira, *The Incredible years*, *SafeCare* eta *TripleP*. Kontuan izan behar dugu baita, gurasotasuna positiboarekin lotuta Gurasotasun Curriculum Hoberenarena dagoela: Gurasotasun positiboa martxan jartzeko behar diren konpetentziak dira hauek eta hainbat dimentsio barnebiltzen ditu [3]. Jarraian, bost programa aurkituko dituzu deskribatuta.

1.PROGRAMA	
PROGRAMA	Crecer felices en familia (programa domiciliario)
NORK ARGITARATUA	Junta de Castilla y León eta HESTIA
URTEA	2012
ORRI -KOPURUA	45
ZER LANTZEN DA ETA NORENTZAKO?	0-5 urteko haurrak dituzten familiei etxeko arreta emateko da. Gurasoei laguntzea eman nahi zaie, euren gurasotasuneko trebezietan sostengua eta gida eman nahi zaie, haurren beharretan zentratuta. Ondoko behar hauei buruzko gidaritza ematen da: behar fisiko-biologikoak (elikadura, loa, higiena, temperatura, ariketa fisikoa eta jolasa, integritate fisikoa eta arrisku errealek babesa), behar kognitiboak (hauerrei portaera prosozialak izaten laguntzen dieten balio-sistemak, autokontrola, etab.), behar emozionalak eta sozialak (ziurtasun emozionala hobetsiz, gizarte euskarri onak garatuz, portaeran mugak jarritz...), behar sexualak (esplorazio bidez norbere buruaren ezagutza ahalbidetuz) eta azkenik, ingurune fisikoaren eta sozialaren beharrak (sozializazioa hobesten duten prozesuak indartzu eta arrisku posibleak ekidinez)
KONTSULTA	[2019-03-22]

ESKURAGARRI	http://www.bienestaryproteccioninfantil.es/fuentes1.asp?sec=25&subs=168&cod=1363&page
--------------------	---

2.PROGRAMA	
PROGRAMAREN IZENBURUA	Caminar en familia. Programa de competencias parentales durante el acogimiento y la reunificación familiar
NORK ARGITARATUA	Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad eta GRISIJ
URTEA	2015
ORRI-KOPURUA	48
ZER LANTZEN DA ETA NORENTZAKO?	Gurasotasun trebezia espezifikoen euskarri izateko, batetik familiekin eta bestetik euren seme-alabekin taldeka lantzeko programa bat da, profesionalen esku jarria. Guraso/seme-alaba hauek harrera prozesuetan daude eta familia-batera egoteko (bateratzeko) lan egiten da. Helburu nagusia, guraso/seme-alaba hauek babes-neurria onartzea eta inplikatzeko da, seme-alabak gurasoekin etxera ahalik eta azkarren itzuli daitezen. Baita, seme-alabak etxean daudenerako, euren arteko bateratzea egonkortzen laguntzea. Harrera-prozesuko momentu desberdinetarako ematen da laguntza: Haserako garairako, bai hurrek eta bai gurasoek banaketaren neurria onartzeko konpetentziak izan ditzaten; tarteko garairako, bixitetan afektuzko binkulua mententzeko gurasotasuneko konpetentzia espezifikoak garatzeko; eta, azken garairako, haurrak etxera itzultzerakoan konpetentziak izateko
KONTSULTA	[2019-03-22]
ESKURAGARRI	https://repositori.udl.cat/bitstream/handle/10459.1/65165/M%C3%B3dulo%20.%20Sesiones%20de%20presentaci%C3%B3n.pdf?sequence=1&isAllowed=y

3.PROGRAMA	
PROGRAMAREN IZENBURUA	Soporte para Adolescentes Acogidos y Acogidas en Familia Extensa (SAFE)
NORK ARGITARATUA	Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad Centro de Publicaciones
URTEA	2017
ORRI-KOPURUA	278

ZER LANTZEN DA ETA NORENTZAKO?	(3.PROGRAMAREN JARRAIPENA) Familia zabalarekin harreran dauden 12-16 urte bitarteko (lehetasuna adin hauek dute) nerabeekin lantzeko da programa hau. Taldekako esku-hartzea egiteko pentsatua dago, 9 saiotan zehar. Programaren erreferente teorikoak erresilientzian eta euskarri sozialean oinarrituta daude. Familia harrera krisian ez dagonerako pentsatua dago eta harreran dagoen nerabea ez dago harreraren bideragarritasuna eta jarraitasuna zalantzan jartzen. Harreran dauden nerabeak bolondreski joaten dira programaren saioetara. Taldean parte hartzea eta bertako arauak errespetatzea onartzen dute
KONTSULTA	2019-03-22
ESKURAGARRI	http://www.observatoriodelainfancia.mscbs.gob.es/productos/pdf/safe.progsoporteadolescentesacogidos.accesible.pdf

4.PROGRAMA	
PROGRAMAREN IZENBURUA	Programa de competencia familiar (PCF). <i>Strengthening Families Program-en</i> (SPF) gaztelararako moldaketa
NORK ARGITARATUA	Ministeritza
URTEA	2006
ORRI -KOPURUA	Hainbat material dira, erostekoak
ZER LANTZEN DA ETA NORENTZAKO?	Gizarte zerbitzuetako profesionalentzako edo erakundeentzako programa da. Aldi berean aplikatzeko hiru programa dira: bat gurasoei zuzenduta dago, bigarrena seme-alabei eta hirugarrena familia osoarekin lan egiteko. Helburua, gurasotasuneko konpetentzia, trebezia sozialak, familiako harremanak eta seme-alaben portaera hobetzea da (7-11, 11-14 eta 12-16 urterako bertsioak daude)
KONTSULTA	[2019-03-22]
INFORMAZIOA ESKURAGARRI	https://www.mscbs.gob.es/ssi/familiasInfancia/parentalidadPos2012/docs/posters/PCompetencfamiliar.pdf https://competenciafamiliar.uib.es/programa/contenidos/

5.PROGRAMA	
PROGRAMAREN IZENBURUA	Programas de intervención destacados en violencia filio-parental: Descripción de un programa innovador de intervención precoz
NORK ARGITARATUA	
URTEA	2018
ORRI-KOPURUA	10
ZER LANTZEN DA ETA NORENTZAKO?	Artikulu honen bidez gurasoen aurkako indarkerian esku-hartzeko programen errebixio bat egiten da, helburu nagusia, esku-hartze goiztiarrerako programa bat aurkeztea delarik. Programa hau hiru azpiprogramatan banatuta dago, bat nerabeentzako, bigarrena gurasoentzako eta hirugarrena familientzako
KONTSULTA	[2019-03-22]
ESKURAGARRI	http://www.papelesdelpsicologo.es/pii?pii=2873

4.4. Erreferentzia bibliografikoak

[1] LEA ARTIBAICO MANKOMUNITATEA. [online] [Kontsulta: 2019-5-15]

Eskuratuta: http://www.lea-artibai.org/eu-ES/Baliabideak/Argitalpenak/Orrialdeak/Publi_Guiaparamadrespadres.aspx

[2] GURASOTASUNAREN ATARIA. [online] [Kontsulta: 2019-5-15] Eskuratuta:

<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/gurasotasuna/>

[3] HAEZI-ETXADI [online] [Kontsulta: 2019-5-15] Eskuratuta:

http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/presentacion_guraso/eu_def/adjuntos/gurasotasunaren-curriculum-optimoa.pdf